

SAREAN Elkartea XXX. TOPAKETAK

“Eskolako aniztasuna kudeatzen”



Donostiako Irakasle Eskola
2011-04-07

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Eskola inklusiboaren zutabeak
3. Ikastetxe Publikoetan aniztasunari erantzuteko ikasleekin zuzenean gaur egun egiten dena eta datuen interpretazioa
4. Hoberantz egiteko proposamenak
5. Indarrean dagoen legediari begirada
6. Proposamen nagusiak

Sarrera- 1

SAREAN Elkarteak 2011ko apirilaren 7an bere XXX. Topaketak burutu ditu Donostiako Irakasle Eskolan.

SAREAN Elkarteak 178 ikastetxe Publiko biltzen ditu eta bere jardueraren helburu nagusia Eskola Publikoaren hobekuntza izanik, ikasturte bakoitzean intereseko gaien inguruan bi topaketa antolatzen ditu. Aldi honetan "Eskolako aniztasuna kudeatzen" izenburupean antolatutako jardunaldian 115 pertsona elkartu gara gaiaren inguruko adituen iritziak entzuteko, hausnarketa egiteko, eskolen arteko esperientziak partekatzeke eta lan guztiaren ondoren proposamenak egiteko. Txosten honek lanketa horren lekuko izan nahi du.

Jardunaldia atal desberdinetan banatu da. Lehen zatian, Lourdes Iriarte eta Marisol Uria andereek "Inklusiorako lidergoa eta eskola antolaketa" izenburu duen hitzaldiaren bidez aniztasunari era egokian erantzuteko, eskolak behar duen antolaketa aztertu dute hausnarketarako hainbat aspektu agerian uzten. Bigarren atala Topaketen gunea izan da eta bertan lana talde txikitan antolatu da; jasotako berreen arabera, partaideek biziki estimatzen dute une hau eztabaida argudio errealekin bideratzen delako, ikastetxe desberdinetako arazo, proposamen eta argibideak konpartitzen direlako eta azkenean gaiaren inguruan Eskola Publikoaren izenean egingo diren proposamenak bertan mamitzen direlako.

Jardunaldiaren azken zatian Administrazioak gaiaren inguruan duen planifikazioa ezagutzeko aukera izan genuen Hezkuntzaren Berriztatze Zuzendaria den Cándido Hernandez jaunak egindako aurkezpenaren bidez.

XXX. Topaketetan egindako lanketaren ondorioak, lehen esan bezala, Eskola Publikoak aniztasunaren inguruan duen iritzia osatuko dute, SAREAN Elkarteak holan aurkeztuko ditu Administrazioaren aurrean edota beste edozein forotan eta elkartearen WEB gunean www.sarean.net jarriko dira.

Eskola Publikoak ibilbide luzea du gizarteak planteatzen dituen erronkei erantzuna ematen eta ikasle guztiek lor dezaketen arrakastarik handiena eskaintzeko ikusten duen bide bakarra inklusibitatea da. Beraz, nahi dugun etorkizunera heltzeko ilusio handiz jo eta ke lanean aritzeko prest gaude.

Eskola Inklusiboaren Zutabeak- 2

Inklusio egoera ematen da eskola komunitate osoa, gurasoak, ikasleak, irakasleak eta beste eragileak, proiektu berbereko partaide sentitzen direnean. Eskola denen artean eta denontzat egina egon behar du. Gure eguneroko lanean errotuta eduki behar dugun kontzeptua: " ikasle bakoitzak balioa baduela".

Eskola inklusiboaren helburua oso zabala da eta gela arruntetan ikasle guztien bertaratzearekin hasten da, denon partaidetza bultzatzen jarraitzen du eta denon amaiera arrakastatsuekin bukatu nahi du.

Apostu honetan etekin handiena ateratzeko ikastetxeko zutabe batzuk errebisatu behar dira:

- Kultura: eskolako balore, ideiak eta interesak dokumentuetan islatuta
- Politika inklusiboa: erabakietan, antolaketan, erabakiak egiteko prozesuetan. Diseinua egiteko denak desberdinak garela eduki behar dugu.
- Praktikak: gertaeren aurrean aplikatuko ditugun prozedurak

Zutabe hauek artez eraikitzeke funtzioa duten eragileen erantzukizuna garrantzi handikoa da. Bakoitzak bere esparruan aniztasunaren trataeran hartzen dituen erabakiek Ikastetxearen Proiektua osatuko dute eta amaierako lorpenetan islatuko dira. Eragile horiek honakoak dira:

- Administrazioa
- Ikastetxeko Zuzendaritza
- Klaustroa
- Gurasoak

Txosten honetan egiten diren proposamenak ere talde horien arabera sailkatuta agertuko dira.

Aniztasunari erantzuteko eskoletan egiten dena - 3

Talde txikietakoa lana errazteko galdetegi bat erabili da. Bertan deskribatzen diren egoerak aztertuta dira, norberaren ikastetxean egiten diren ala ez zehaztu da eta jarduera bakoitzaren ezaugarriak azaldu dira. Era berean, sortzen diren arazoak ere aipatu dira.

Hemen azaltzen diren datuek jasotako 55 inkestaren emaitzak islatzen dituzte.

<i>Zailtasunak dituzten ikasleak gelatik kanpora atera apoioa emateko: tailerrak, talde txikiak...</i>		
Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 90	<ul style="list-style-type: none"> • Salbuespen bezala, errekupeazio bereziak direnean: logopedia, CRI... • Klasean lantzen dena talde txikiago batetan era intentsiboan egiteko. • Atzerritik datozen ikasleak oinarrizko hizkuntzaz lehenbailehen jabetzeko osatzen den "hizkuntza gela" • Lehen zikloan irakurketa talde txikiak egiteko • Talde malguak eginez arazo larrienak adierazten dituztenak • Indartze neurri puntualak egiteko ikasleen araberako material egokitua erabiliz • Arreta berezia eta kontzentrazioa areagotzea behar duten ikasleekin. • Gai espezifiko batzuk lantzeko 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaslea gelatik kanpo egotea. • Gelaz kanpo lan egiten duen irakasleak eta tutoreak ondo koordinatuta egon behar dutela eta askotan denbora falta dago • Espazio aldetik zailtasunak daude • Giza baliabideen falta. • Ikaslea besteen aurrean estigmatizatzeko arriskua • Gelako dinamika eten egiten da eta sarritan lana bikoiztu • Arreta pertsonalizatuaren menpekotasuna • Irakasle batzuen jarrera • Eskola erabaki argirik gabe, Eztabaida gabe, inertziaz erabakitzea.

Argi geratu da errekurtsio hau ikastetxe gehienetan erabiltzen dela baina inkestetan azpimarratzen da **egoera konkretuei erantzuna emateko** dela eta aniztasuna errespetatzen duten beste irtenbide batzuk ere kontuan hartzen direla.

Gelan beste irakasle bat sartu zailtasunak dituzten ikasleak atenditzeko		
Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 98	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasle konkretu batzuk kontrolatuta edukitzeko eta besteekin normaltasunez lan egin ahal izateko. • Pertsona desberdinen sarrera: itzultzailea, programa berezien arduraduna, ijitoekin lan egiteko, HIPI-a, ACI-a duten ikasleekin lan egiteko. • Momentu puntualetan gela barruan talde berezia egin • Nahiz eta arazoak izan ume batzuk laguntzarekin gelako proiektuan hartzen dute parte, hobeto sentitzen dira. • PT-ak sartu • HIPI-a sartu • Tutoreak beste gelatan sartu saio libreetan. • Arreta berezia ikasle batentzat bada ere, besteei ere atentziora ematen diete. • Irakasleen arteko elkarlana bultzatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Askotan irakasleen borondatearen arabera funtzionatzen dela. • Koordinazio handia eskatzen du eta denborarik ez dago. • Baliabide pertsonalen falta igartzen da. • Behar Bereziak zerrendan sartzea gero eta zailagoa da. Sartzen direnak oso txarto daude. • Errendimendua gutxitu daiteke. • Irakasleen partetik egon daitekeen erresistentzia, aparteko lana suposatzen duelako. • Irakasle batzuk ez dute onartzen beste baten presentzia, ez dute beren lanaren lekukoa izatea.

Laguntza emateko aukera hau oso hedatuta dago eskoletan. Denontzat argi dago arazoak dituzten ikasleentzat laguntza ohiko testuinguruan jasotzeak alde onuragarria dakarrela, beren egoera nolabait "normalizatzen" laguntzen du eta bide batez taldeko kohesioa ez da galtzen. Bestalde gelak "ireki" dira eta ikasleen konplexuak neurri handi batetan uxatu egin dira, denok zer ikasi eta zer irakatsi badaukagula praktikan demostratuta.

<i>Gelan bi irakasle sartu ikasle guztiak atenditzeko</i>		
Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%60	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona desberdinen sarrera PT-a, beste tutorea edo HIPI-a talde osoari laguntzeko. • Matematikan buruketa tailerra. • Praktiketako ikasleak daudenean. • Tutore bat libre geratzen denean maila berbereko beste gelan sartu. • Momentu, arlo eta maila batzutan PT-a sartu. • Irakurketa eta idazketa egiteko. • Talde elkarreragileak hiru irakasleekin: Hizk. Mate. • Bi irakasle gehi gurasoren bat talde elkarreragiletan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Koordinatzeko zailtasuna denbora faltagatik • Administrazioak jartzen dituen oztopoak: aurten ordezkapenak ezarritako araudia. • Praktikan jartzeko zaila. • Kosta egiten da bi irakasle horien zereginak ongi zehaztea. • Zaila da arreta mantentzea eta lan ohiturak finkatzea. • Formazio falta nabaritzen da. • Baliabide falta. • Laguntzarako irakasleak gutxitu dira. • Askotan tutoreen onarpena zaila da, lan karga gehiago suposatzen duelako. • Zalantzak ere sortzen dira: Heldu gehiegi biltzen ote diren momentu batzuetan?

Jarduera honek Topaketen partaideen ustez abantaila asko ditu, adibidez errol batzuekin apurtzea, ikasle guztien parte hartzea bermatzen du, elkarren arteko harremanak sendotzeko aukera handia ematen du, ikasleek elkar animatzen dira ikastera, elkarrekin ikasteko praktika eskaintzen du eta talde lana ere indartu egiten du.

Hala ere ikusten dugu ikastetxeetan ez dela aniztasuna zaintzeko gehien erabiltzen den formula; honetarako arrazoiak arazoaren aldean topatu behar dira; Beste arrazoiaren artean aipatuena denbora falta izan da. Honen harira gogor salatu da Hezkuntza Saila eta Hitzarmena sinatu zuten sindikatuen erantzukizuna. Ordezkapenak egiteko erabili behar dugun denborak beste zereginak murriztu ditu eta batez ere ekintza hau, aniztasunari arreta jartzeko aukerak gutxitzen.

<i>Gelako irakasleak denbora eta ekintzen antolaketa egitea aniztasunari begira. (Zailtasunak dituztenei atenditzeko erak, ikasle bizkorrentzako proposamenak...)</i>		
Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 75	<ul style="list-style-type: none"> • Gai batzuekin egokitzapena egiten da. (Ingurune) • Laguntzak zehaztuta eta materiala egokituta • Proiektuen bidez • Ikasle gutxiko taldetan: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Behar dutenei jarraipena estua egiten ➢ Ikasle bizkorrentzat lan berezia egiten: fitxak eta informatika bidezko ekintzak • Zikloko ikasleak nahastuz • Amara Berriko metodologiaz lagunduta • Talde elkarreragileak osatuz 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago ikastetxean baldintza honekin kontaktzen duen erabaki orokorra. • Koordinatzeko denbora falta nabaria dago. • Ikasle kopurua handiegia da hau egin ahal izateko. Aniztasunari aurre egiteko biderik onena ratioak jaiste da. • Zailtasun handiak daudenez asmoak teoriarik geratzen dira askotan. • Baliabide pertsonalak falta dira. • Formazioa falta da. • Tutore batzuen erresistentzia.

Jarduera hau garrantzitsua da eskoletan eta behin eta berriro saiakerak egiten dira ikasle guztiengana heltzeko. Badira ikastetxe batzuetan errotuta dauden metodologiak, nolabaiteko erreztasuna eskaintzen dutenak baina orokorrean geletako ikasle kopuru altua oztoporik handiena suposatzen du. Gauzak horrela, ikastetxe askotan irakasleen borondatearen arabera funtzionatzen da gela barruan aniztasunari dagokionez. **Aholkulariaren figura** garrantzi handikoa dela azpimarratu da.

*Gelako aniztasunari erantzuteko lagungarri diren **metodologia desberdinak** erabiltzea*

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 76	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza kooperatiboa • Txokoetan lan egitea • Ikasleei parte hartzeko aukera handiagoa ematen. • IK-KI prozesua • Talde elkarreragileak bolondresekin. • Berdinen arteko ikaskuntza bideratu. • Talde malguak • Irakasleen proposamenen araberrako ekintzak: hitz egiteko jokuak, talde-lana. . . 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora falta talde-lana egiteko. • Ikastetxe askotan erabaki pertsonalak dira, ez dago ikastetxe osoa konprometituta uzten duen erabaki orokorra. • Irakasle batzuen erresistentzia aldaketa edo gauza berrien aurrean. • Baliabide falta.

Parte hartzearen kopuruak adierazten du ikastetxe gehienetan saiakerak egiten ari direla nahiz eta erabaki finkorik ez eduki.

Taldekatze era desberdinak antolatzea (Gela barruan, gela artean. . .)

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 80	<ul style="list-style-type: none"> • Gela barruan maila desberdinak • Irakurketa binaka egitea • Ikaskuntza kooperatiboan proposatzen diren taldekatze batzuk. • Proiektuetan gela desberdinetako ikasleak nahastuz. • Ahal den neurrian gela bikoiztu momentu batzuetan • Talde mota desberdinak aldatuz batzuetan homogeneo eta bestetan heterogeneo. • Tailerrak • Zirkulazio libre • Talde malguak • Talde elkarreragileak • Taldeak zikloka • B-D ereduko ikasleak nahastuz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Espazio falta ikaragarria dago metodologia berriekin esperimentatzeko. • Baliabide falta nabaritzen da. • Administrazioaren eskakizunak gehienetan oztopo larria dira edozein esperientzia martxan jartzeko.

Topaketen partaideek adierazitakoaren arabera esan dezakegu ikastetxeetan arduratuta daudela aniztasunarekin eta besterik ezean taldekatzearekin egiten dituztela frogak. Hemen oztoporik nagusia espazio falta da.

<i>Gelan landu beharreko edukiak zailtasunaren arabera sailkatzea ikasle bakoitzaren aurrerapena islatzeko</i>		
Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 52	<ul style="list-style-type: none"> • Tutore edo ikasle bakoitzaren arabera. • Egokitzapenak Ingurunen ereduen arabera. • Ikasle bakoitzaren beharra ikusita, lanaren egokitzapena egin. • Edukiak sekuentzietan banatuta ematen zaizkie eta bakoitzak ahal duena egiten du. • Programazioa zikloka egitea. Honek malgutasuna ematen du. • Lanetan zailtasunaren arabera sailkapena egin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabaki sendoaren falta. Tutore bakoitzaren eskuetan gelditzen da. • Oso zaila kontrolatzeko. • Denbora falta lana era horretara prestatzeko.

Item honetan praktika baxuagoa da eta eztabaidan sortutako argudioetatik bi nabaritu dira besteen gainetik:

- Ikastetxe gehienetan ez dago erabakita metodologiako ezaugarri hau sartzea. Horrek suposatzen du irakasleen arabera jokatzeko.
- Denbora falta orokorrean eta bereziki ikasleei lana era honetara helarazteko.

Bestalde baieztatu dezakegu dagoen denborarik gehiena arazoak dituzten ikasleei laguntzeko dedikatzen dela eta hutsune handia dagoela arin amaitzen duten ikasleei behar duten arreta eskaintzeko proposamenetan.

Gelakideen arteko harremana hobetzeko ekintzak

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 96	<ul style="list-style-type: none">• Berdinen arteko laguntza bultzatu• Tutoretzan edota alternatiban kulturarteko ekintzak.• Enpatia landu ekintza desberdinen bidez: antzerkia. . .• Jolas kooperatiboak• Gelako talde-dinamika hobetzeko dinamikak astero.• Tailerrak• Ikasketa kooperatiboa bultzatu.• Hezkuntza emozionala lantzeko ariketa sistematikoak.• Pentazitatea• Bizikidetza Planaren bidez.• Ekintza osagarrien bidez.• Irakurketa bikoteka• Eredu nahasketak.• Gelako asanbladaren bidez.	

Gelakideen arteko giro ona oinarrizkoa jotzen da gure ikastetxeetan eta holan islatzen da item honetan azaltzen den parte hartzean. Deigarria da ere konprobatzea ariketa ugari egiten dela geletan eta ez dela arazorik aipatzen. Eztabaidan azpimarratu da guztiz baieztatuta daukagun errealitatea: aspektu hau beti landu behar da, ikasturte guztietan lekua du eskolako plangintzan.

Ebaluazio irizpide argiak eta mailaka sailkatuak edukitzea.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%72	<ul style="list-style-type: none"> • Curriculumean dauzkagunak. • Egokitzapenak kontuan hartuta ebaluatzen zaie. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irizpideak askotan idatzita dauzkagu baina gero betiko eredutara jotzen dugu. Currikulumean jartzen duguna geurea egin behar dugu. • Kasu askotan bukatu gabe daude. • Konpetentziak ebaluatzeko zailtasun handiak dauzkagu, kontzeptua oraindik ez dagoelako barneratuta. • Askotan ez dira berrikusteko epeak markatzen. • Klaustroetan gai honen inguruko eztabaida falta da.

Ebaluazioaren atala garrantzitsua jotzen dugun arren, ez dago zehaztuta ikastetxe askotan. Kosta egiten zaigu irizpide argiak zehaztea eta adostea, beraz, errotuta dauzkagun sistema klasikoak aplikatzen segitzen dugu. Bestalde ebaluazio hitzak nolabaiteko urduritasuna sortarazten du ikastetxeetan eta neurri baten gure lanaren epaiketa egiten dela sentitzen omen dugu. Kutsu hori uxatzeko erarik onena klaustroetan eztabaida ugari egitea izan daiteke. Ondorioz gaiaren inguruan dauden susmoak desagertu eta erabakiak sortuko direla uste dugu.

Ikasleen aniztasunari erantzuteko ebaluatzeko era desberdinak erabiltzea

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 45	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinentzat moldaketak batez ere hizkuntza arloan. • Ebaluaketa jarraia. • Ikasleen arabera. • Autoebaluazio sistemak tartekatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola gehienetan lan hau egiteke dago.

Ebaluatzeko garaian ikaslearekin banaka egoteko uneak izatea.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
% 30	<ul style="list-style-type: none">• Zenbaitetan eta zenbait ikaslekin, denekin ez.• Goiko mailetan bakarrik.• Irakasle bakoitzaren arabera.• Kasu batzuetan bakarkako tutoretza.	<ul style="list-style-type: none">• Hau egiteko oztoporik nagusiena eskola guztietan denbora falta da.• Ikasle kopuru altua.

Item honek puntuaziorik baxuena izan du. Banakako harremanetara heltzeko denbora gehiagoren beharra aipatu da. Gaur eguneko gelak bete-beterik daude ikastetxe askotan eta nahitaez kasurik nabarmenenak bakarrik artatu daitezke.

Familiekin harreman estua izateko bidea ezarri

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%78	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte hasieran egoera bakoitzerako prozedura jakinarazten zaie.• Harrera Plana.• Zirkularrak elebitan.• Elkarbizitzarako behatokia.• Gelako ordezkariak.• Web orria eta blogak.• Eskolako gida edota agenda.	<ul style="list-style-type: none">• Gutxitan erabiltzen da jarritako bidea.• Batzuetan zailtasun asko dago.

Ikastetxeetan ahaleginak egiten dira familiekin harreman ona eta erreza izateko. Puntuazioa kontuan hartuta ikusten da neurri handian lortzen dela baina oso esparru garrantzitsua denez, eskola gehienetan eten gabe egiten dira proposamen berriak hoberantz joateko.

Bestalde ikasleak zein gurasoak ere anitzak gara eta bakoitzaren garapen pertsonala oso esanguratsua da harremanak izateko unean.

ZUZENDARITZAREN ANTOLAKUNTZA ANIZTASUNARI BEGIRA

Irakasleen arteko elkarlana-koordinazioa bultzatzeko denbora antolatu.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%96	<ul style="list-style-type: none"> • Formakuntza planaren barruan hilero lehen eguna koordinaziorako gorde. • Maila bereko irakasleak elkartzeko uneak zehaztu. • Pedagogi Batzordearen bilerak astero. • Ziklo bilerak. • GITak • IKT dinamizatzailea, HIPI edota Aholkularien bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora falta arazo larria da ikastetxe guztietan. • Administrazioetik datozen aginduak eta erabakiak: ordezkapenak, derrigorrezko betebeharrak. . . • Batzuetan eraginkortasuna falta da, agian aurretik egon behar duen eztabaida egiteko aukera gutxi dagoelako.

Ikasleen jarraipena egiteko, irizpideak bateratzeko, plan bereziak burutzeko denborak antolatzen dira.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%70	<ul style="list-style-type: none"> • GIT bilerak • Hiruhilabeterik behin zailtasunak dituzten ikasleekin dagoen irakasle taldea bildu. • Ebaluazio bilerak. • Laguntza Taldeko kideen bilerak. • Aholkularia eta tutoreen bilerak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Plana egiteko eta jarraipena egiteko denbora falta. • Jarraipena egiteko era berriak asmatzeko denbora eza. • Aholkulari gutxi dago

Gelako aniztasunari erantzuteko irakasleak egin beharreko lanak gidatzen dira: lanak proposatu, koordinatu, jarraipena egin. . .

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
%56	<ul style="list-style-type: none"> • Aholkulari edo PTen esku dago. • Irakasleen arabera. • Tutoreak+Laguntza Taldea. • Ikasketa Buruaren gidaritzak. • Zuzend. Proiektutik proposatutako gaia 	<ul style="list-style-type: none"> • Askotan denbora faltagatik ezerezean gelditzen da. • Pertsonen arabera batzuetan posiblea da ala ez.

Aniztasunaren inguruan irakasleak formatzeko saioak antolatzen dira.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
<p>%54</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berritzegunetik datozen proposamenak: HIPI, Hezkuntza Berezikoak, Aholkularia. • Hitzaldiak antolatu eta materialak jaso. • Mintegiak, SAREANeko Topaketak. • Garatu ikastaroak. • Kasu bereziak artatzeko ikastaroak: X-fragil, autismo... • Didaktika bereziak: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Ikasketa kooperatiboa ➢ Irakurketa bikoteka ➢ Hezkuntza emozionala ➢ Interkulturalitatea • Gaien inguruko bilera monografikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Formazio gehiagoren beharra dago. Gehienetan arazoan inguruan egiten da baina aniztasunaren inguruan ez. • Askotan gure kabuz eta ahal dugun moduan ibili beharra.

Eskola eta Familien arteko elkarlana bultzatzeko denbora antolatzen da.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
<p>%58</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ordu-tegiaren barruan astero gurasoekin egoteko egun zehaztuak. • Guraso eskola: APA+ Zuzendaritza. • Ikas Komunitate Proiektuaren bidez. • Jaiak antolatzeko batzordearen bidez. • Behatokia. • Elkarbizitza Plana. • Irakurketaren ulermena familiekin. • Bakarkako entrebistak 	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasunak ordutegiak finkatzeko. Familiak eta irakasleen ordutegiak uztartzeko arazoak. • Familien parte hartzea ondo definituta ez egotea. • Askotan familien parte hartzea eskasa da.

Familiak eskolako partaide sentiarazteko ekintzak antolatzen dira.

Egiten dugu	Egiten dugunaren ezaugarriak	Arazoak
<p>%54</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Urtero elkarlana+jaiak biltzen dituen eguna elkarrekin antolatu. • Jai egunetan parte hartzeko aukera ematea. • Eskolako ekintza osagarrien bidez. • Plan berezirik gabe hainbat ekintza guraso eta irakasleen artean antolatu eta burutu: Elkarbizitza, jangela, baratza eskolan. . . • Gurasoak gelatara ekarri, Ikas Komunitatea proiektua. . . • Behatokia. • WEB gune, blog eta abarren bidez. • Ikasle ordezkariak • Eskolaz kanpoko ekintzen bidez. • Guraso Eskola: hitzaldiak. . . 	<ul style="list-style-type: none"> • Eremu hau hobetu behar da, dedikazio handia eskatzen du eta zaila da jendea erakartzea. • Gurasoak inplikatzeko orokorrean zaila baldin bada zer esanik ez etorkinen gurasoen kasuan. • Gizarte mailan, erantzukizun handiegia jartzen da eskolaren gainean.

Topaketen partaideek adierazitakoaren arabera, Zuzendaritza Talde gehienek antolakuntzan aniztasunaren inguruko ardurak nabaria da. Zuzendaritzaren lana eraginkorragoa da zuzenean kontrolatzen dituen eremuetan eta denbora falta oztoporik nagusia baldin bada ere, ahalegin handia egiten da dagoenari etekina ateratzeko.

Elkarlana eta koordinazioa indartzeko aholkulariaren garrantzia azpimarratu da eta behin eta berriro salatu da gaur egun figura horren denbora esleitzeko dauden irizpideak ez direla egokiak eta ikastetxearen tamainak zeresan handia daukala beharrei erantzuna emateko orduan.

Zuzendaritza Taldeek ikastetxeko antolaketa egiteko orduan arreta berezia jartzen dute familien partaidetza lortzeko. Jakin badakigu eskola komunitatea osatzen duten kolektiboen arteko partaidetza orekatua lortzea ez dela erreza, eta horregatik formula berrien bila gabiltza eten gabe baina sarritan emaitza, espero genuena baino eskasagoa izaten da. Dena dela, ikastetxeetan argi eduki behar dugu partaidetzak adierazten duena, erabakietan parte hartzea suposatzen duela eta ez dela kolaborazio soilak.

Hoberantz egiteko proposamenak - 4

XXX. Topakeetako partaide guztiekin lau lan-talde osatu dira eztabaida eta parte hartzea errazteko. Talde horietan egin diren proposamenak, lehen aipatu bezala, ikastetxean proposatzen den proiektuan erantzukizuna duten eragileen arabera sailkatuta agertuko dira, hau da, Administrazioak, Zuzendaritza Taldeak, Klaustroak eta Familiak.

ADMINISTRAZIOARI ZUZENDAUTAKO PROPOSAMENAK

1. *Hezkuntza Saila*

- Aniztasuna era orokorrean hartuta, lan egiteko baliabideak eskaini ikastetxeei; ez arazoak dituztenei laguntzeko bakarrik.
- Ikastetxeei eztabaida eta koordinaziorako DENBORA eman.
- Ikastetxeei autonomia gehiago eskaini egokia ikusten duten Proiektua garatzeko eta behar den antolaketa egiteko.
- Ebaluazio arloa egiteko unean aniztasuna jadanik errealitatea dela onartzea eta sistema konpetitibotik ahalik eta gehien urruntzea.
- Eskola Komunitateko partaideei aniztasunean lan egiteko formazioa eskaini.
- Espazioak metodologia egokiak aplikatzeko egokitzea posible den kasuetan eta arreta berezia jartzea eraikuntza berriak egiterakoan.
- Aniztasunari erantzun egokia emateko garrantzi berezia duten figurak ikastetxeen tamainaren arabera jartzea: Aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoa, Entzumena eta hizkuntza alorreko irakaslea. . .
- Eskola gehienetan stress egoera nabaria aurkitzen dugu eta horregatik ikastetxeei egiten zaizkien eskakizunak neurtzea eskatzen da.

2. *Laguntza Zerbitzuak*

- Esperientziak ezagutarazi.
- Tutoreei transmititu aniztasunak ez duela zama izan behar materiala eta formazioa eskainiz.

3. *Beste Administrazioak*

- Udaletan politika inklusiboak bultzatzea
- Gizarte mailan sortarazten den konpetibitateari aurre egiteko programak ezarri.
- Egoera sozioekonomiko ahuletan dauden ikasleei desberdintasunak konpentsatzeko laguntza eskaini.

IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK

- Ikastetxearen planteamendu orokorra aniztasuna kontuan hartuta egitea.
- Ikastetxeko estamentu guztientzako balore sistema bateratu aniztasuna onartzen duen proiektua diseinatuz.
- Funtzionamendu araudiak aniztasunaren arabera definitzea.
- Elkarbizitzarako marko argi eta adostua ezartzea eta jarrera onargarriak eta ez onargarriak zehaztea.
- Koordinazioa errezten duen antolaketa egitea.
- Hausnarketarako eremu eta aldiak proposatzea.
- Metodologiari buruzko hausnarketa bultzatzea, beste ikastetxeetako esperientziak ezagutaraztea (ikaskuntza kooperatiboa, Amara Berri, Ikas komunitateak etab.) aniztasunari hoberen erantzuten duena aukeratzeko.
- Ebaluazioari buruzko lan saioak proposatzea.
- Formakuntza saioak antolatzea.
- Akordiotara heltzeko tresnak diseinatzea.
- Ikastetxe barruan egiten diren esperientziak konpartitzeko aukerak sortu.
- Familien partaidetza errezteko bideak zabaldu.

KLAUSTROARI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK

- Aniztasunaren kontzeptua argitu.
- Irakasle guztien inplikazioa aniztasuna onartzeko, lan egiteko proposamenak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.
- Metodologia egokiari buruzko eztabaidetan parte hartu eta erabakiak hartu.
- Koordinaziorako uneak topatzea.
- Taldean ahalik eta gehien lan egitea.
- Beharrei erantzuna emateko praktikak aldatzeko prest egotea.
- Ebaluatzeko irizpide eta sistemetan aniztasuna kontuan hartu.
- Formazioan parte hartu.
- Ikasleen arteko interakzioa bultzatu.
- Ikastetxe barruko esperientzia eta estrategiak konpartitu.
- Adostutako erabakiak praktikan jartzea.
- Gelako giroa zaintzea.
- Ikasketa egoera jakin batzuk sortzea eta horien bitartez ikasleen erritmo eta estiloari erantzun.
- Tutoretzari behar duen garrantzia eman.
- Familiekin harremanak izateko ahaleginak egitea.

FAMILIEI ZUZENDUTAKO PROPOSAMENAK

- Ikastetxera hurbildu proiektu komun baten partaide bezala.
- Eskolara hurbildu egiten denari buruz informazioa edukitzeko eta ez bakarrik arazo bat sortzen denean.
- Eskolako bizitzan parte hartu.
- Eskola eta familiaren arteko harremanak indartzeko proposamenak egin.

Indarrean dagoen legediari begirada - 5

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEA

Lehenengo idazpuruan euskal eskola publikoaren hatsapen orokarrak eta helburuak jasotzen dira eta haren ezaugarriak zein diren zehazten: anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile izango da. Lehenengo idazpuru horretan sendo bultzatzen den eskola publikoak giza eta gauzazko baliabideez ongi hornituta egon behar du eta harekin loturik dauden gizarte-sektore guztiek esku hartzea eta ikastetxeek egiazko autonomia izatea ahalbideratuko du.

LOE

Las enseñanzas que tienen carácter obligatorio son la educación primaria y la educación secundaria obligatoria. En la etapa primaria se pone el énfasis en la atención a la diversidad del alumnado y en la prevención de las dificultades de aprendizaje, actuando tan pronto como éstas se detecten.

HITZARMENA

4) Aniztasunaren eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta arrazionalizatzea eta indartzea.

LOEK eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak aniztasunaren arreta ezartzen dute oinarrizko irakaskuntza osoa zuzendu behar duen funtsezko printzipio gisa, ikasle guztiei beren ezaugarrietara eta premietara egokitutako hezkuntza eskaintzeko. Halaber, ekitatea bermatzeko apustuak berekin dakar hezkuntzan laguntzeko premiaren bat duten ikasleei hezkuntzako erantzun berezia ematea, eta zeregin horri heltzeko baliabide zehatzak ezartzea, ikasle horien txertatze eta integratu eta gizarteratzeko.

Ikasle guztiei hezkuntza-erantzun egokia emateko, inklusio-printzipioa hartu behar da abiapuntutzat, era bakarra baita guztien garapena bermatzeko, ekitatea bultzatzeko eta gizarte-kohesio handiagoa lortzeko. Hezkuntza-etapa guztiek eta ikasle guztiek behar dute aniztasunari erantzutea. Hau da, ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ez da gutxi batzuen premiei erantzuteko neurri gisa hartu behar, printzipio gisa baizik.

Helburu hori lortzeko, tutoretza eta orientabidea funtsezko tresnak dira ikasle guztiak banan-banan ezagutzeko eta arreta-kontuetan nori berea eskaintzeko.

Ikastetxeek ematen duten hezkuntza-erantzuna eta horretarako jarri diren giza baliabideak garrantzi handikoak izan dira, baina hezkuntza-laguntza hori hobetzeko, alderdi sinatzaileek beharrezko ikusten dituzte:

- Aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko **ekintzak aztertzea eta indartzea.**

- Hezkuntza-ekintza horretarako jartzen diren **giza baliabideak aztertzea eta arrazionalizatzea, diagnosi-ardatzak berriro sakon aztertuta.**
- Aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziak dituzten **ikasleei erantzuten parte hartzen duten profesionalen elkarrekintza egokitzea.**

28. artikulua.- Hezkuntza-premia bereziei baliabideak esleitzeko erreferentzia-irizpideak.

1.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak dituzte. Hori dela eta, hezkuntzan beren-beregi lagundu edo erantzun behar zaie eskolatze-aldi batean edo eskolatze osoan.

Baliabide arruntak nahikoa ez badira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzun egokia emateko, ikastetxeek baliabide bereziak izango dituzte ikasle horiek gaitasun pertsonalak ahalik eta gehien garatu ahal izan ditzaten eta, beti ere, ikasle guztientzat orokorrean ezarritako helburuak bete ditzaten.

Era berean, Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako irakasleek parte hartu ahal izango dute ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna ematen, horretarako ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte eta zailtasunek zerikusia badute nahasmendu hauekin: mugako adimen-gaitasunarekin, hiperaktibitate edo hiperaktibitate gabeko atentzio-defizitarekin, irakurtzeko nahasmendu edo dislexiarekin edo hizkuntzaren berariazko nahasmenduarekin.

Hori betetzeko, Pedagogia Terapeutikoko irakasle espezializatuak jartzeko irizpideek kontuan izan beharko dute zenbat ikasle diren eta behar den laguntzaren intentsitatea. Horretarako, erreferentzia modura irizpide hauek aplikatuko dira:

1.1.- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:

- a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 3 ikasletik gora, PTEko irakasle 1.
- b) Behar bezala egiaztaturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten 6 ikasletik 12ra, PTEko 2 irakasle.
- c) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 13 ikasletik 18ra, PTEko 3 irakasle.
- d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 19 ikasletik gora, PTEko 4 irakasle.
- e) Ikastetxe batean, hezkuntza-premia bereziak dituzten 3 ikasle baino gutxiago badaude, berariazko planetan taxutuko da nola erantzun ikasle horiei.

1.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:

- a) Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle 1etik 5era, PTEko irakasle 1.
- b) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 6 ikasletik 10era, PTEko irakasle 2.
- c) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 11 ikasletik 15era, PTEko 3 irakasle.
- d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten 16 ikasletik gora, PTEko 4 irakasle.

Nolanahi ere, kontuan hartuko dira hezkuntza-premia berezietako aholkularitzen txostenak eta lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berriztatze (Hezkuntza Bereziko) teknikarien irizpideak.

Proposamen nagusiak - 7

Sarean Elkarteko XXX. Topaketan izenburuarekin, "Eskolako aniztasuna kudeatzen" gure ikastetxeen errealitatea islatu nahi izan dugu. Eskola Komunitatea osatzen dugunok, gizartea bera bezala, desberdinak gara eta horregatik aniztasuna aipatzen dugunean ez gara bakarrik ikasleei buruz ari, baizik eta irakasle, familiak eta beste langileak ere kontuan hartzen dira aipamen horretan eta onartzen dugu sistemak pertsona ororen gaitasunak garatzeko aukera eskaini behar duela.

Jardunaldi hauetan argi geratu da ikastetxeetan aniztasuna ardura nagusienetarikoa bat dela eta ikasle guztiei behar duten arreta emateko ahaleginak egiten direla baina agerian geratu da ere asko falta dela nahi genukeen egoerara heltzeko. Jakinaren gainean gaude aurreratzea denon lana dela eta Eskola Komunitatearen lanak Administrazioaren laguntza eta inplikazioa behar duela.

Gaiaren inguruko eztabaida interesgarri eta aberatsa lau taldetan burutu da eta atalez atal egindako proposamenetatik ondokoak azpimarratzen dira:

1. Ikastetxearen Proiektua aniztasuna kontuan hartuta egin behar da eta holan geratu behar da islatuta dokumentu guztietan.
2. Irakasleen inplikazioa ezinbestekoa da, beraz, klaustroak hausnarketa, koordinazioa eta talde-lanaren bidez didaktika eta ikaste egoera egokiak erabaki behar ditu.
3. Administrazioak ikastetxeak proiektua garatzeko autonomia handiagoa eman behar du eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini behar ditu, batez ere DENBORA.
4. Familien parte hartzea behar-beharrezkoa da eta indartu behar da.

Amaitzeko XXX. Topaketetan azpimarratu da eskolako aniztasunari behar den erantzuna emateko orain arte egin dena bidea markatzea baino ez dela izan eta aurrera joateko urrats berriak zehaztu behar dira. SAREAN Elkarteak norabide horretan joateko lan egiten jarraituko du.